

tzan auzoko neska-mutikoak arrimen andiz begiratuko daustie. Eguzkia ortzean gorenengo gangan dagokenean, eta goiza eguerdira eldu, zoli-zoli etorriko naitzu pizkaten, eta au esan: «Ama, emoidazu zerbait jateko!» Arrastian, sartaldea itzali ondoan, gerizak zugatz pean kukutzean, itzuliko naz ni illumin. Eta ez naz geiago zugandik iñoiz aldenduko, ezta, nire aita lez, urira lanean joateko be.

Ama, bardin ba'dautzu, nik, andi egitean, enada orren ontzikari izan nai neuke.

R. TAGORE

ARTZ A I A

*“Negua joan eta udaberria asten;
Bazterrak oro dira belarrez betetzen;
Xoria oihanetik kantuz abiatzen.
Bozkarioz artzaina mendirat igaiten.*

*Han dut nere gozoa, han nere bizia!
Jainkoa da bakarrik han nere nausia!
Bertzentzat diru, jan on, soineko ederrak!
Niri pake gozoa, Jaunari eskerrak!”*

(Elizanburu)

Zintzarriak datoz kantari. Beren zurrumuru otsak nere entzumena jarri du ernai. Bidearen oker-unagaitik eztira agiri, baiñan etorri datoz kantari errekatxo marmariaren bestaldetik. Urreratu ala, beren doiñua indartuaz, artalde oin-otsen danborradak eta bee! uluak lagundurik, zintzarrien eresi alaiak aitzen ditut.

Bidebilkunan multzoka azalduz, itxas olatu apartsuak bezela, errekatxoaren gaiñera erori dira ta bere leiarrak zipristinduz ubidegin dute, eta orain, bidea betean, nere exer-

lekuruntz datoz.

Udaberriko eguzki-izpiak beren bizkarretan dizdiratsu jolasten direlarik, loraz ornituriko bide belartsu batetik. Be aldeko arantetan negu sakaillaren gurari maltzurak utzita, mendi barneko larradi oparotsuetara doaz.

Artalde ondoren artzai bat, bere alboan zakur gorritzka illetsu bat eta otzarak arku-
mez beterik dakarzkin asto beltza. Berrogetamar urte inguruko artzaia; begiratu batean, argala, luzea ta beltzarana dala ematen du. Tinko bidaztuaz dijoa; burua txapel beltzez estaldurik, tunika urdiñarre labur bat soñean, galtza urdiñak artillezko galtzerdi zurietan sarturik ta larruzko abarken lokarriekin lotuta dituela. Esku batean makilla darama, bere oinkaden kide delarik; aterkiña lepo aldetik zintzillika eta patrikara muturretik txirula agiririk. Arbasoak millakak urteetan ildazkatu dituzten bideak zear dijoa, beste ainbeste urtetan entzun izango zan zintzarri doiñua lagun duelarik. Musika berdintsuegia dan ura noizik-bein urratzeko, berak darama txirula: lilluragarritzko eresien jabe dana.

Titiro ber-bera artzai dala Bukolika'ren izpilluak aurrez-eurre iduritzen, gure abendaren eredu irudi bat dan ori.

Arranen surmurrean ardien bee...! negarmarraska entzuten da. Ta artzaia, inguratzen duen izadiari ezazoltasunez jaramonik egiteka, bere izadia libre bizi da, ta, ez gu bezela, beti beste norbaitsueri lotuta. Aurrera dijoa berekiko pentsamenetan murgildurik bezela. Zer pentsatzen ote du? Ezer pentsatzen ote du gero? Bere barneko kezkek ezagutu nai nituzke. Kezkak...? Kezkarik ba ote du? Ez; gu gera kezkadunak; gizakunde oitura naspilgarrieri loturik gaudenok.

Artzaia, zorioneko artzaia, irekin duk pakea; luzaro utziko al aute... Gizartearen aitzo zorrotzak iri begira dituk; diru gose dan gizarteak ez al au suntsituko.

Beste mundu bat da ibilkari dijoan au; Euskalerra zati bat, millakak urteak dituan zati bat, aintzinako Euskalerra'ren lorratz bat, aroak zear mirrinduz datorkigun ondakin baten lez eldu zaigun gezna aula.

Berak ba-daki nun dan, an goi aldean, atsegintegia; txabola zurizko saroia, lili, kilker ta mitxeleten zelaia duelarik altzo, ta txori kantari alaien baso orlegia auzo.

Maldaz gorantz ari dira artzaia ta bere ogasunak, auts lañoak ondoren dituztelarik. Oraindik beren keriza somatzen dut... gora ta gora...; zintzarriak doaz kantari...

SAN MARTIN'DAR YON

ENEARENA

(Bergili)

IV Kantua

Muiña.—Yarbas, Getuli'ko errege.—Mercuri'ren mezua.—Enea'k Kartago'tik aldegitoko agintzen du.—Dido'ren kezka, oiñaze, alaka ta eskariak.—Enea'k bere burua zuritzen, adu-indar garai-eziñez ta Ankise aitararen itzal-adorez.—Dido'k berriz ere otoitz, oso setati.—Enea, ostera, ez du ezerk makur-erazten.

Yarbas osoro subiztu omen zan surmur garratz au aditzean, eta sen-galdua, opamai aurrean auzpez, esku biak gora jaso jainkoen